

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

*170/2011 FORU AGINDUA, otsailaren 18koa, 349 ereduaren aurkezpenean identitatea kontraste datuaren bidez frogatzeko aukera kentzen duena.*

Zerga Administrazioarekiko harreman telematikoetan zergapekoen identitatea kontraste datuaren bidez frogatzeko aukera jasota ageri da irailaren 12ko 40/2006 foru dekretuan, Zerga Administrazioaren aurrean egitekoak diren jarduketetan identitatea eta ordezkaritza nola frogatu arautzekoan. Horrela, 2.2.c) artikulua dio Foru Aldundiarekiko harreman elektronikoko, informatiko edo telematikoetan, pertsonen identitatea frogatuzat joko dela sinadura elektronikoko bestelako sistemak erabiltzen direnean, hala nola interesatuak eta Foru Aldundiak ezagutzen duten informazioa emanez, edo kriptografikoak ez diren beste sistema batzuk baliatzen direnean, kasuan kasu eza-eritako baldintza eta moduetan.

Horren babesean, zerga ereduak onartu dituzten hainbat foru agindu direla medio, ahalbidetu da eredu horiek bide telematikoz aurkeztea eta transmisio telematikoa Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean kokaturiko laguntza programa ofizialaren bidez egitean kontraste datua erabili ahal izatea zergapekoak bere burua identifika dezan. Horrelakoxea dugu, esate baterako, 349 ereduak, EBren barruan egindako eragiketen aitortpen laburtzailea, urtarrilaren 27ko 55/2010 foru aginduaren bidez onartua.

Foru agindu horretan, onartzen da aurkezpen telematikoan norberaren identitatea kontraste datuaren bitartez frogatzea laguntza programa ofiziala erabiltzen denean.

Zergadunek gero eta gehiago eta gero eta maizago erabiltzen dute euren harreman telematikoetan sinadura elektronikoko balioztatua edo Ogasun eta Finantza Departamentuak ematen duen pasahitz operatiboa. Horren ondorioa da kontraste datua oso kasu bakanetan erabiltzen dela gaur egun identitatea frogatzeko. Gainera, kontuan izanik sinadura elektronikoko balioztatua edo pasahitz operatiboa harreman elektronikokoak seguruagoak izateko berme direla, komeni da kontraste datua erabiltzeko aukera aipatu dugun ereditik kentzea.

Bestalde, azaroaren 24ko 1011/2010 foru aginduak, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duenak, zabaldu egin du bitarteko elektronikokoak zerga obligazioak betetzeko garaian nahitaez erabiltzeko eremua, eta hori ezinbestean hartu beharra dago kontuan 55/2010 Foru Aginduan.

Horiek horrela, honako hau,

**DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA****DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

*ORDEN FORAL 170/2011, de 18 febrero, por la que se suprime la acreditación mediante dato de contraste en la presentación del modelo 349.*

La utilización del dato de contraste como forma de acreditación de la identidad de los obligados tributarios en sus relaciones por vía telemática con la Administración tributaria está contemplada de forma expresa en el Decreto Foral 40/2006, de 12 de setiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral. Así, su artículo 2.2.c) señala que en los supuestos de relación vía electrónica, informática o telemática, se considerará acreditada la identidad de las personas que se relacionen con la Diputación Foral mediante la utilización de otros sistemas de firma electrónica, tales como la aportación de información conocida por la persona interesada y la Diputación Foral, u otros sistemas no criptográficos en los términos y condiciones que en cada caso se establezcan.

Al amparo de dicha habilitación, se han dictado diversas ordenes forales aprobatorias de modelos tributarios, en las que se posibilita su presentación telemática utilizando el dato de contraste como forma de acreditación del obligado tributario en el momento de transmitir telemáticamente la declaración a través del programa de ayuda oficial alojado en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas. Este es el caso del modelo 349 de declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias, aprobado por la Orden Foral 55/2010, de 27 de enero.

En dicha orden foral, para la presentación telemática se permite utilizar el dato de contraste como forma de acreditación de la identidad en el caso de utilizar el programa de ayuda oficial.

La cada vez mayor difusión y utilización de la firma electrónica reconocida o la clave operativa emitida por el Departamento de Hacienda y Finanzas para las relaciones de los contribuyentes a través de medios electrónicos, hacen que la utilización de dato de contraste como forma de acreditación venga a ser residual. Ello, unido al hecho de que la firma electrónica reconocida o la clave operativa son formas de acreditación que otorgan mayor garantía en la seguridad de las relaciones electrónicas, aconsejan la eliminación de dicha forma de acreditación en el modelo referenciado.

Por otra parte, la aprobación de la Orden Foral 1.011/2010, de 24 de noviembre, por la que se regula la obligación de efectuar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica, amplía el ámbito de preceptividad de la utilización de los medios electrónicos para el cumplimiento de las obligaciones tributarias, hecho que exige sea tenido en cuenta en la Orden Foral 55/2010.

En su virtud,

## XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra. Aldatzea urtarrilaren 27ko 55/2010 foru agindua, Europar Batasunaren barruan egindako eragiketak laburbiltzen dituen aitortpena aurkezteko erabili beharreko 349 eredu berria eta ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarri magnetikoaren diseinu fisiko eta logikoak onartzen dituena.*

1.\$Seta 7. artikulua aldatzen dira urtarrilaren 27ko 55/2010 foru aginduan, Europar Batasunaren barruan egindako eragiketak laburbiltzen dituen aitortpena aurkezteko erabili beharreko 349 eredu berria eta ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarri magnetikoaren diseinu fisiko eta logikoak onartzekoan, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. artikulua. 349 eredua onartzea.

349 eredu berria onartu da, –Europar Batasuneko subjektu pasiboekin egindako eragiketen aitortpen laburbiltzailea– deritzona.

Honako modalitateak erabili ahal izango dira EBko subjektu pasiboekin egindako eragiketen aitortpen laburbiltzailea aurkezteko:

a) Paperezko euskarria, bi ale dituena, Administrazioarena eta interesatuarena, eta foru agindu honetan I. eranskin gisa ageri den diseinua izan behar duena.

b) Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarria. Bere diseinu fisiko eta logikoak foru agindu honetako II. eranskinean ezarritakoak izango dira.

Artikulu honetako c) letraren bigarren paragrafoan xedatutakoan izan ezik, aitortpenen zerrendatutako pertsona edo entitateak 100 baino gehiago baldin badira, aitortpenak nahitaez aurkeztu beharko dira ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian. Gainerako kasuetan hautazkoa izango da aurkezpen modu hori erabiltzea.

c) Transmisio telematikoa, foru agindu honen 5. artikuluan jasotako prozeduraren arabera.

Azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duenak, 1. artikuluan 1. apartatuan aipatzen dituen zergapekoek, nahitaez, bide hau erabilita aurkeztu behar dute aitortpena».

«7. artikulua. Aitortpena transmisio telematikoz aurkezteko prozedura.

*Bat.* 349 aitortpen eredua transmisio telematikoz aurkezteko, kontuan hartuko da azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duenak, ezarritako prozedura.

*Bi.* Transmittitu beharreko fitxategi informatikoa prestatzeko, erabiltzeko izango da Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://www.gfaegoitza.net>) eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean (<http://www.gipuzkoa.net/ogasuna>) erabiltzaileen esku jarriko den laguntza programa ofiziala. Guztiarekin ere, zilegi izango da beste edozein programa informatiko ere erabiltzea, betiere foru agindu honen II. eranskinean jasotako formatuaren araberrako fitxategia lortzeko aukera ematen badu.

*Hiru.* Aurretik transmititutako aitortpenak gero berrikus-teak akatsak agerian utzi baditzake ere, transmisio telematikoa egin eta berehala orri bat bistaratuko da pantailan, paperezko inprimakiaren laburpen-orriaren interesatuaren alearen tankerakoa, aitortpenak aurkeztu izanaren frogagiri moduan erabiltzeko.

## DISPONGO

*Artículo único. Modificación de la Orden Foral 55/2010, de 27 de enero, por la que se aprueban el nuevo impreso y los diseños físicos y lógicos del soporte directamente legible por ordenador para la presentación del modelo 349 de declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias.*

Se modifican los artículos 1 y 7 de la Orden Foral 55/2010, de 27 de enero, por la que se aprueban el nuevo impreso y los diseños físicos y lógicos del soporte directamente legible por ordenador para la presentación del modelo 349 de declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias, que quedan redactados en los siguientes términos:

«Artículo 1. Aprobación del modelo 349.

Se aprueba el nuevo modelo 349 –Declaración recapitulativa de operaciones con sujetos pasivos de la UE–.

La declaración recapitulativa de operaciones realizadas con sujetos pasivos de la UE se presentará conforme a las siguientes modalidades de presentación:

a) Soporte papel, consta de dos ejemplares, uno de los cuales será para la Administración y el otro para el interesado y se deberá ajustar al diseño que figura como anexo I de la presente Orden Foral.

b) Soporte directamente legible por ordenador, cuyos diseños físicos y lógicos se ajustarán a lo establecido en el anexo II de la presente Orden Foral.

Salvo lo previsto en el segundo párrafo de la letra c) de este mismo artículo, será obligatoria la presentación en soporte directamente legible por ordenador para aquellas declaraciones que contengan más de 100 personas o entidades relacionadas, siendo opcional en los demás casos.

c) Transmisión telemática, de acuerdo al procedimiento previsto en el artículo 5 de esta Orden Foral.

Los obligados tributarios señalados en el apartado 1 del artículo 1 de la Orden Foral 1.011/2010, de 24 de noviembre, por la que se regula la obligación de efectuar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica, presentarán obligatoriamente la declaración por esta vía».

«Artículo 7. Procedimiento para la presentación mediante transmisión por vía telemática.

*Uno.* La presentación mediante transmisión por vía telemática de la declaración modelo 349 se efectuará con arreglo al procedimiento previsto en la Orden Foral 1011/2010, de 24 de noviembre, por la que se regula la obligación de efectuar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica.

*Dos.* Para la elaboración del fichero informático a transmitir se podrá utilizar el programa oficial de ayuda, que se ponga a disposición de los usuarios en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa ubicada en la dirección <https://www.gfaegoitza.net> y en la web tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas en la dirección <http://www.gipuzkoa.net/ogasuna>, u otro programa informático capaz de obtener un fichero con el mismo formato que el que se recoge en el anexo II de la presente Orden Foral.

*Tres.* Sin perjuicio de una posterior revisión en la que se puedan detectar errores en las declaraciones transmitidas, inmediatamente después de realizarse la transmisión telemática se visualizará una página, similar al ejemplar para el interesado de la hoja resumen del correspondiente impreso en papel, que servirá como comprobante de presentación de las mismas.

*Lau.* Behin zerga aitortena bide telematikoz transmitituta, ez da beharrezkoa izango inolako agiririk aurkeztea Ogasun eta Finantza Departamentuan.

*Bost.* Transmisio telematikoa banakako aitortanak aurkezteko baino ezin da erabili.

*Sei.* Bide telematikoz bakarrik aldatu, zuzendu edo deuseztatu ahal izango dira bide telematikoz aurkeztutako aitortanak, baldin eta foru agindu honek 3. artikuluan aipatutako epea amaitu aurretik aurkeztu badira».

#### AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2011ko otsailaren 18a.—Pello Gonzalez Argomaniz, Departamentuko foru diputatua.

(1492)

(2013)

*Cuatro.* No será necesario presentar con posterioridad a la transmisión telemática de la declaración tributaria ningún tipo de documento en el Departamento de Hacienda y Finanzas.

*Cinco.* La transmisión telemática únicamente posibilitará la presentación de declaraciones individuales.

*Seis.* La modificación, rectificación o anulación de las declaraciones presentadas por vía telemática que se efectúe antes de la finalización del plazo a que se refiere el artículo 3 de esta Orden Foral, sólo se podrá efectuar por vía telemática».

#### DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, a 18 de febrero de 2011.—El diputado foral del Departamento, Pello Gonzalez Argomaniz.

(1492)

(2013)